

# ADIN GUZTIETAKO EMAKUMEZKOEN EUSKADIKO XAKE TXAPELKETA (2018ko ekainaren 16tik 17ra, Gasteizen)

Aldabe Herritar Gunean jokatu zen (Gasteiz, Araba), larunbat eta igandean. Ordubeteko partidak izan ziren, gehi 30 segundo jokaldiko.

## AZKENEKO SAILKAPENA (BOST TXANDA JOKATU ONDOREN)

- 1) **Eihartze Buiza Prieto (Bizkaia) (2.055) – 5 puntu.**
- 2) **Haizea Salvatierra Alzorritz (Nafarroa) (1.621) – 4 puntu.**
- 3) **Irene Garcia Bolaños (Bizkaia) (1.361) – 3 puntu.**
- 4) Gisela Gaviria Valencia (Bizkaia) (1.488) – 3 puntu.
- 5) Maria Jesus Saez de Jauregi Suso (Araba) (1.560) – 2'5 puntu.
- 6) Haizea Tornay (Gipuzkoa) (1.357) – 2 puntu.
- 7) Pino Vicedo Rubio (Gipuzkoa) (1.667 euskal elokoa)– 2 puntu.
- 8) Maria Teresa Junquera Ciaurriz (Araba) (1.435) – 1'5 puntu.
- 9) Ayala Barcala Arauz (Araba) (1.329) – Puntu bat.
- 10) Lorea Azkarate Martin (Araba) (1.017) – Puntu bat.

## MIKEL GUREAKO HAIZEA SALVATIERRA ALZORRIZ BIGARREN, ELOKO 38 PUNTU IRABAZITA



Haizea Salvatierra Alzorritz, pieza beltzekin.

Eihartze Buiza Prieto bizkaitarra berriz nagusitu da eta dagoeneko palmaresean Ainhoa Barrio Ugidos harrapatu du: Hiruna titulu. Azkeneko 6 urteetan lortutakoak, gainera. Lehia horretatik kanpo dago orain Portugaleteko jokalaria, azkeneko bi urteetan ez baitu parte hartu. Bitartean, 18-19 urte inguruko Eihartze Buiza Prieto, Arrigorriagako Endroke xake taldekoa, goraka dabil, nahiz eta eloan azkenotan zerbait jaitsi (2.055 ditu orain).

Jokalari hau ezaguna da Nafarroan, zenbait torneotan jokatu duelako eta Nafarroan epaile lana ere egin duelako. Iruñean bizi da orain.

Burlatako Mikel Gurea taldeko Haizea Salvatierra Alzorriek ongi utzi zuen nafarren ohorea, bigarren lekua eskuratuta. Dena den, hori pronostikoa betetzea izan zen, 1.621eko eloarekin postu hori eskuratzeko hautagai argia baitzen, Eihartze Buiza lehenengo posturako zen bezala. Haizea Salvatierrak 15 urte izanen ditu urtea amaitzean.

Haizea Salvatierrak FIDE eloan 38'4 puntu irabazi ditu txapelketa honetan. Haizea Tornay gipuzkoarra, Maria Jesus Saez de Jauregui Suso arabarra, Maria Teresa Junquera Ciaurriz arabarra eta Irene Garcia Bolaños bizkaitarra gainditu zituen. Hirugarren txandan Eihartze Buiza Prieto garailearen aurka galdu zuen.

Hain zuzen ere, bigarren postua lortzeko erabakigarria izan zen azkeneko partida. Pieza beltzekin irabazi zion Irene Garcia Bolañosi eta hau hirugarren postuan geratu zen.

## **TXAPELKETAREN AZKENEKO HISTORIA**

2006. urtean: **Paula Camara Gil** (Araba), garaile.

2007. urtean: **Paula Camara Gil** (Araba), garaile.

2008. urtean: **Isabel Menoyo Alonso** (Bizkaia).

2009. urtean: **Daniela Velte** (Gipuzkoa), garaile.

2010. urtean: **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), garaile.

2011. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), garaile; **Daniela Velte** (Gipuzkoa), bigarren; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), hirugarren.

2012. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), garaile; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), bigarren; **Isabel Menoyo Alonso** (Bizkaia), hirugarren.

2013. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Ainhoa Ortin Blanco** (Nafarroa), bigarren; **Lara Fernandez Santamaria** (Bizkaia), hirugarren.

2014. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Daniela Velte** (Gipuzkoa), bigarren; **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), hirugarren.

2015. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), bigarren; **Irati Laseca Arana** (Nafarroa), hirugarren.

2016. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Maria Jesus Saez de Jauregui Suso** (Araba), bigarren; **Carlota Aramendia Ybarra** (Nafarroa), hirugarren.

2017. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Gizela Gaviria Valencia** (Bizkaia), bigarren; **Maria Jesus Saez de Jauregui Suso** (Araba), hirugarren.

2018. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Haizea Salvatierra Alzorritz** (Nafarroa), bigarren; **Irene Garcia Bolaños** (Bizkaia), hirugarren.

## **PALMARESA, 2006. URTETIK**

- 1) **Ainhoa Barrio Ugidos (Bizkaia) – 3 titulu.**
- 2) **Eihartze Buiza Prieto (Bizkaia) – 2 titulu.**
- 3) **Paula Camara Gil (Araba) – 2 titulu.**
- 4) **Angels Cucarella Montell (Bizkaia) – 2 titulu.**
- 5) **Oihana Gonzalez Etayo (Nafarroa) – Titulu bat.**
- 6) **Isabel Menoyo Alonso (Bizkaia) – Titulu bat.**
- 7) **Daniela Velte (Gipuzkoa) – Titulu bat.**

## **JOKALARI NAFARRAK TXAPELKETA HONETAN**

2010. urtean: **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), txapeldun.

2011. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), txapeldun; **Irati Laseca Arana** (Nafarroa), seigarren.

2012. urtean: **Angels Cucarella Montell** (Bizkaia), txapeldun; **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), laugarren.

2013. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), txapeldun; **Ainhoa Ortin Blanco** (Nafarroa), bigarren.

2014. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), txapeldun; **Oihana Gonzalez Etayo** (Nafarroa), hirugarren.

2015. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), txapeldun; **Irati Laseca Arana** (Nafarroa), hirugarren.

2016. urtean: **Ainhoa Barrio Ugidos** (Bizkaia), garaile; **Carlota Aramendia Ybarra** (Nafarroa), hirugarren.

2017. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Carlota Aramendia Ybarra** (Nafarroa), bosgarren.

2018. urtean: **Eihartze Buiza Prieto** (Bizkaia), garaile; **Haizea Salvatierra Alzorritz** (Nafarroa), bigarren.

**2018-06-17.**

**Iturria:** “<http://www.xake.net/2018-fva/2018-06-16%20CAM%20EUS%20FEMENINO.html>” eta “<http://chess-results.com/tnr359960.aspx?lan=2&art=1&fed=ESP&turdet=YES>” webguneak.